

INDUSTRIA-PRODUKZIOAREN INDIZEA. 2025EKO ABUZTUA


Euskal Autonomia Erkidegoko industria-jarduera % 1,8 murriztu da 2025eko abuztuan

Aurreko hilaren —2025eko uztaila— aldean, industria-produkzioa % 0,1 handitu da

Eustaten datuen arabera, 2025eko abuztuan Euskal Autonomia Erkidegoko industria-produkzioa aurreko urteko hil berean izandakoa baino % 1,8 txikiagoa izan da, lan-gutegi homogeneoari dagokionez.

Aurreko hilabetearekin alderatuz gero, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-jarduera % 0,1 handitu da azken hilabeteen, urtaroen eragina zuzendu ondoren.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa (%)



Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera, *Kontsumo-ondasunetan* produkzioak urte arteko portaera negatiboa izan du 2025eko abuztuan, eta produkzioa % 2,0 murriztu da sektore osoa kontuan hartuta. Jaitsiera hori batez ere *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* portaerak eragin du, horien produkzioa % 3,8 jaitsi baita; izan ere, *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* produkzioa % 7,6 handitu da, 2024ko abuztuko datuekin alderatuta. *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* artean, besteak beste, altzarien eta etxeke tresnen fabrikazioa sartzen da. *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* artean, bestalde, elikagaiak prozesatzeko eta kontserbatzeko jarduerak, garbiketa- eta higiene-produktuen fabrikazioa, farmazia-produktuak eta janzteko arropen produkzioa agertzen dira.

Ekipamenduko ondasunen produkzioa (ibilgailu motordunen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbide-materialen eraikuntza eta aeronautikaren edo itsasontzien eraikuntza barne hartzen dira) % 1,7 jaitsi da aurreko urteko abuztuaren aldean.

Bitarteko ondasunetan (metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa barne hartzen dira) produkzioa % 0,4 jaitsi da urte artean.

Azkenik, *Energiaren* produkzioa % 5,4 jaitsi da 2025eko abuztuan, aurreko urteko hil beraren aldean. Sektore honetan sartzen dira energia elektrikoaren produkzioa eta hornidura eta petrolioaren fintzea.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Abuztua 2025

	Egutegi eraginak zuzendutako datuak		Datu desestazionalizatuak
	m / m-12	Am / A(m-12)	m / m-1
Indize orokorra			
Euskal AE	-1,8	-1,1	0,1
Araba/Álava	-2,4	-3,2	0,5
Bizkaia	-3,0	-1,1	-1,6
Gipuzkoa	-0,1	-0,1	1,6
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK			
Kontsumo-ondasunak	-2,0	1,0	-2,5
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	7,6	-1,5	0,2
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-3,8	1,6	-3,1
Ekipo-ondasunak	-1,7	-0,3	-3,5
Bitarteko ondasunak	-0,4	-1,7	1,8
Energia	-5,4	-6,2	-2,6

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtarrietik behatutako azken hileraren artean (Am), aurreko urtean pilatutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

Data 2025eko Urriaren 3a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Industria-produkzioaren indizearen urte arteko bilakaera 2025eko abuztuan negatiboa izan da hiru lurraldeetan: Bizkaian % 3,0 murriztu da, Araban % 2,4 eta Gipuzkoan % 0,1.

Maila bereiziagoan, Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, 2025eko abuztuan, urte artean, produkzioaren hazkuntza handiena sektore hauek izan dute: *Materiala eta ekipa elektronikoa* eta *Metalurgia eta produktu metalikoak*; % 9,3ko eta % 2,6ko igoerekin, hurrenez hurren. Aldiz, produkzioaren urte arteko murrizketa nabarmenenak *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 10,9) eta *Zura, papera eta arte grafikoak* (% 9,9) sektoreetan izan dira.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektore A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Abuztua 2025

	m / m-12
Elkadura ind., edariak, tabakoa	-2,7
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-9,9
Kaubua eta plastikoak	-5,0
Metalurgia eta produktu metalikoak	2,6
Materiala eta tresna elektrikoak	9,3
Makineria eta tresneria	-1,0
Garraio-materiala	-4,1
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-10,9

(p)Behinbehineko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1)Euskal Aeko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2025eko Urriaren 3a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2025EKO ABUztUKO BALANTZE METATUA

Urteko lehen zortzi hilabeteetako balantze metatuan, Industria-produkzioaren indizea % 1,1 jaitsi da. Abuztura arte metatutako produkzioa % 6,2 jaitsi da *Energian*, % 1,7 *Bitarteko ondasunetan* eta % 0,3 *Ekipamenduko ondasunetan*, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean. *Kontsumo-ondasunen* sektoreko produkzioa, aldiz, % 1,0 igo da.

Lurralde historikoei dagokienez, 2025eko lehen zortzi hilabeteetako metatua balantze negatiboarekin itxi da hiru lurraldeetan. Araban % 3,2 jaitsi da produkzioa 2024ko aldi metatu beraren aldean; Bizkaian, % 1,1; eta Gipuzkoan, azkenik, % 0,1.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, hilabete honetako indizea lagingaren % **85,43**ko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62